

Sexu politikak



Bostekoa

Alex Silva

Horrelaxe deituko nituzke nik neuk: sexu politikak. Pentsatzen dut askok, izenburua irakurtzean, sexuaz hitz egingo dudala pentsatu duzuela. Hau da, hirurogeita bederatziaz, felazioaz eta kanpaia jotzeaz arituko naizela. Edo, agian, sexu harremanetan izan behar dugun politikaz. Harreman diktatorial edo dominatzailea, berdintasunezkoa, eskuzabaltasunezkoa... Hori ere ez da, bada, nire gaia.

Nonork pentsa dezake politika eta sexuaren artean izan daitekeen loturaz hitz egingo dudala. Ez dakit nola azaldu... Eusko Guda-riak topera jarrita larrua jotzen dutenak edo Internazionala abesten dutenak bikotekidearen arnasotsekin batera jo eta ke dabiltzanean... Hori ere ez da, ordea, gaur landuko dudana. Eta ez dut hitz egingo, noski, politikarientzatean dauden sexu harremanez ere.



Herritarrak botoa ematen Azkoitian, udal hauteskundeetan. ONINWITZA LETE ARRIETA

Politikaz hitz egingo dut. Bada-ki nire artikulua hiru garren paragrafora heldu bazara, izenburuaren «sexu» hitzak eraginda izan dela. Eta orain, nik izenburuko bigarren hitzari heldu, eta testuari ekingo diot. Bada, bai!

Baina ez da kasualitatea. Orain, kanpainan gaudenez, ia egunero gure etxean politika-publizitatea jasotzea. Nik erabili dudana formula bera erabiltzen dute politikariek. Izenburu, hitz eta irudi politekin jantzi beraien diskurtso eta panfletoak eta ho-

rrekin gure bozka nahi dute. Sexu hitza ez dute erabiltzen, baina askatasuna, burujabetasuna edo bakea moduko hitzkin erakartzen dute gure arreta.

Berdin dio zein koloretakoak diren, zein tokitan jaiok, nora begirako politika egingo duten, ezkertiarak edo eskuindarrak diren... Haien siglek ere ez dute ezer adierazten: EH Bildu, PSE-EE, PP, EAJ-PNV, EQUEO... berdin dio. Denek gauza bera egiten baitute.

Haien helburu bakarra da gure

diruarekin bizitzeko aukera izatea lau urtez edo gehiagor, gure herrietan egiten direnak beren erara kudeatzea, eta beren lagunen artean banatzea... Eta gu? Non gelditzen da gure iritzia? Gure helburuak? Gure nahiak?... Herritar xumeen iritzia lau urtetik behin hartzen dute kontuan. Lau urtetik behin galdetzen digute. Lau urtetik behin interesatzen dira gure gauzez.

Interesatu diot... agian gehiegizko konpromisoa eskatzen duen hitza da hori. Haien intere-

satzen zaien gauza bakarra: esandako egunean, kristalezko kutxaren barnean gure gutunazala sartzea, barnean beraien izena daraman txarteltxoarekin... Eta kitto!

Zergatik diodan hori? Beno, badakit ez dela gauza berria. Politikan aspaldi erabiltzen gaituzte. Baina badirudi denen nahia eta zeregina ditzosozko krisi honetatik ateratzen laguntzea dela. Eta horretan ados nago, denen zeregina baita. Baina horretarako, diru publikoa egoki erabiliz, gauzak errazagoak izango dira.

Hori horrela izanik, ez da izan alderdi politikorik bere erabakiak horretara begira hartu dituenik. Hau da, alderdien kanpainak diru publikotik ordaintzen dira, kopuru handi bat behintzat. Milaka gutunazal, milaka zigilu, milaka zerrenda... Finean, zertarako? Gizartearen ehunekorik handienak badaki nori emango dion bere botoa kanpaina hasiurretetik. Beraz, zergatik ez erabaki kanpaina bere horretan laga eta bertara bideratuko litzatekeen dirua gizarte-ekintzara edo herritarrei laguntzeko programetara bideratu?

Ez dakit, ni ez naute konbentzitu. Agian, izenburuari erreparatuz, sexua praktikatzeko pasatuko dut datorren hauteskunde eguna. Hori izango ote da sexu politika?